

Eusko Jaurlaritzak eta Petronor-Repsolek Oil&Gas sektoreko hornitzaileen plataforma sortuko dute

- **Sektoreko enpresa hornitzaileei kudeaketa eta posizionamendua hobetzen lagunduko diete**
- **Produktu eta zerbitzu berriak ikertzeko, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen eta Repsolen teknologia-zentroaren arteko lankidetzaz ireki dute**

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburu Arantxa Tapiak eta Petronor-Repsoleko presidente Emiliano López Atxurrak hitzarmen marko bat sinatu dute Oil&Gas sektoreko hornitzaileen garapen-plana abiarazteko, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen (ZTBES) eta Repsolen teknologia-zentroaren (RTZ) arteko lankidetzaz markoa egituratzeko.

Bi erakundeek uste dute Euskadiko sistema ekonomikoaren lehiakortasun-sistemak hobetzeko beharra duela, eta horretarako, produktibitate ekonomikoa bermatu behar dela, nazioartean erreferente den eta inguruko enpresa hornitzaileek osatzen duten sare industriala indartzen laguntzen duen industria-jardueraren esparru berritzaile batean.

Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzak eta Petronor-Repsolek lankidetzaz publiko-pribatua bultzatzeko konpromisoa adierazi dute. Izan ere, gizarte-erantzukizuneko tresna eraginkorra da eta enplegua eta produktu eta zerbitzu aurreratuak sortzen laguntzen duen ingurua eragiten du, Oil&Gas sektoreko enpresa hornitzaileei dagokienez.

Euskadik Espezializazio adimentsuko estrategia (RIS3) dauka, Europar Batasunak babestua, eta industriaren garapenean lehentasunezko hiru arlo ezarri ditu: fabrikazio aurreratuak, energia eta biozientziak. Horregatik, energiaren sektoreko hitzarmen honek Euskadiko industria osoaren beharrei eta interesei erantzuten die.

Hornitzaile lehiakorren plataforma

Hitzarmen honek Oil&Gas sektorerako hornitzaile oso lehiakorren plataforma sortzeko konpromisoa biltzen du.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak eta Petronorrek honako konpromiso hauek hartu dituzte:

- Euskadiko Oil&Gas sektoreko hornitzaileak eta hornitzaile potentzialak identifikatzea.

- Hornitzaile bakoitzak sektorean lehiakor aritzeko duen gaitasuna balioztatzea.
- Hornitzaile potentzialei garatzeko plan bat definitzen eta ezartzen laguntzea, lehiakorrakoak izan daitezten produktu edo zerbitzuari jakintza gehituta eta kudeaketa aurreraturantz abiatuta.

Arlo horretan, Eusko Jaurlaritzak lehiakortasuna aztertzeke askotariko tresnak jarriko ditu enpresen esku, bai kudeaketaren alorrekoak (Innobidea-Kudeabide programa), bai teknologiaren alorrekoak (ZTBES).

Petronorrek, bestalde, sektorearen beharrei eta etorkizuneko garapen-ildoei buruzko ezagutzak helaraziko dizkie enpresei, adituen laguntzaz.

Halaber, produktu eta zerbitzu berritzaileak aztertzeke eta probatzeko konpromisoa hartu du. Enpresei emaitzen berri emango die, eta produktu edo zerbitzuak bideragarri egiteko hobekuntzak proposatuko dizkie. Hala, emaitzak egokiak direnean, merkaturatzeko erreferente eta preskriptore jardungo du.

ZTBESen eta Repsolen teknologia-zentroaren arteko lankidetzak markoa

Hitzarmenaren helburuetako bat produktu eta zerbitzu berritzaileagoak eta aurreratuagoak lortzeke lankidetzak markoa sortzea da. Hala, ZTBESek Repsolen teknologia-zentroak bultzatutako proiektuetan parte hartzea aurreikusi da.

Repsolen teknologia-zentroak bultzatzen dituen garapen-ildoetan «bazkide» izan daitezkeen eragileak identifikatuko dira gaitasun zientifiko-teknologikoen arabera, baita interes arloak ondo ezagutzen dituztelako zenbait proiektutan parte hartu ahal izango duten pertsonak ere.

Berriazko lantalde teknikoak

Hitzarmen hau gauzatzeko, zeregin bakoitzerako berriazko lantalde teknikoak sortuko dira, eta Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordetzak eta Industria Sailburuordetzak ere parte hartuko dute.

Muskiz, 2015eko irailaren 3a